

Laura, Nahia eta Luka gara, Elgoibarko Batxilergoko 1. mailako ikasleak eta baita ekintzaileak ere. Helburu argi bat dugu: teknologia erabiltzea gizarteari laguntzeko. **Organoen 3D inprimaketan** aritzen den enpresa bat sortu dugu, honen bidez, transplanteen merkatuan existitzen den eskaria gero eta handiago denez, gure proiektuarekin irtenbide bat aurkitu nahi diogu.

Gure proiektuak **osasun-sektorea** lagundu nahi du, **Osakidetza** bezalako zerbitzuekin lankidetzan arituz. Pazienteen bizitza hobetuko duten alternatiba pertsonalizatuak eta iraunkorrak eskainiz.